


- [Oihane Perea](#)
 - [Uxue Alberdi](#)
 - [Jose Juan Zubieta "Etxabe"](#)
-
-



1982ko udazkenean 4,5 kilorekin sortu zen haurrari Sustrai jarri zioten izena. Txikitatik pilotari izan nahi zuen Sustraik eta bost urterekin eman zituen bere lehen pilotakadak. Hamabi urterekin bertsoa utzi zuen bezala utzi du pilota hamazazpirekin. Dena den, pilotazale izaten jarraitzen du eta ez dio Go?iri begirik kentzen. Gaur egun, argi dago ez dela pilotaria izango. Agian, tonbolan, bertsolari izatea tokatuko zaio. Kontuak kontu, Sustrai izaten segitzen badu zoriontsua izango da. Berriako zutabegile lanetan aritzen da. Hendaiaiko bertso-eskolako irakaslea.

[[Sustrai Kolinaren Biografia osoa](#)]

Euskara eguneroko bizitzan

Ene euskara beti
 mudan bezain mugan
 noiztik zabilta egun
 hobeen menturan
 ezidazu galdetu
 maitatzen zaitudan
 ez ta zenbat ostiko
 eman dizkizudan
 ezidazu galdetu
 maitatzen zaitudan
 mundu oso bat ikusten
 baldin badut zugan



[Ikus Bideoa](#)

Euskara eguneroko bizitzan

Zuri esker izan naiz
 ulerkor taliban
 nekagaitz nekagarri
 maitekor "hooligan"
 zure hitzen munduak

azaldu baizidan
urra ez dela beti
egoten ditziran
zure hitzen munduak
azaldu baizidan
mundu osoago bat
zegoela nigan

 [Ikus Bideoa](#)
